



PUNTUEUS FUNDAZIOARENTZAT KOMUNIKAZIO ETA
PUBLIZITATE ZERBITZUA KONTRATATZEA

2016ko urtarrilak 29

1. KONTRATUAREN XEDEA

PuntuEUS Fundazioaren komunikazio eta publizitate beharrei erantzutea.

2. EZAUGARRIAK

PuntuEus Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da. PuntuEus Fundazioak aurkeztu zuen, 2012ko maiatzean, .eus domeinuaren eskaria ICANN erakundearen aurrean eta bera izan da, 2013ko abenduan, ICANN erakundearekin kontratua sinatu duena.

Hori horrela, PuntuEus Fundazioa da .eus domeinua kudeatu, kontrolatu eta administratzeko ardura duen erakundea.

PuntuEUS Fundazioak domeinuaren zabalkundea eta erabilera bultzatzeko zerbitzua azpikontratatuko ditu. Zerbitzu horrek gutxieneko ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Komunikazio estrategiaren garapen eta gauzatzerako aholkularitza.
- Markaren eboluzioaren jarraipena egitea eta helburuak betetzeko pausuak ematen parte hartzea.
- Publizitate kanpainen sormena, diseinu grafikoa, egokitzapenak eta arte zuzendaritza.
- Kanpainak eta promozioak bideratzeko etengabeko laguntza hurrengo hedabide zein euskarrietan: prensa-idatzia, irratia, telebista, kanpoko publizitatea, newsletterrak, bannerrak, ekintza berezien diseinua eta abar.
- 2016 osoan zehar zerbitzu jarraitua eskaintzea
- PuntuEUS Fundazioarekin jarraipen bilerak egitea.

3. AURREKONTUA

Zerbitzu osoa eskaintzeko 12.000 euro + BEZ izango da gehienezko aurrekontua.

4. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Parte hartzeko eskaintzak posta elektronikoz aurkeztuko dira honako helbidean: info@domeinuak.eus 2016ko otsailaren 15a baino lehen.